



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Miren Urbieta-Vega sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak *Ametsetan* izeneko diskoa interpretatuko dute Arriaga Antzokian, euskara eta XX. mendeko euskal kultura musikala aldarrikatzen duen lana

- Abenduaren 10ean (astelehena), 19:30ean, Donostiako sopranoak eta Barakaldoko pianistak beren lana interpretatuko dute zuzenean. Diskoak 30 abesti ditu, eta horietatik 24 euskaraz dira.
- *Ametsetan* lanak hauek barne hartzen ditu: Sorozábalen *Zazpi lieder*-ak, Guridiren herri-kantetako zortzi, Isasiren lau konposizio, Lavillaren *Cuatro canciones vascas*, García Moranteren euskal melodietako lau eta García Abrilren *Tres nombres de mujer* zikloa.

**Bilbo, 2018ko abenduaren 3a.**- Garai hauetan, artista gutxi dute disko bat argitaratzeko ausardia, eta are gutxiago euskarazko musika lirikoarekin. Horixe da **Miren Urbieta-Vega** sopranoak eta **Rubén Fernández Aguirre** pianistak *Ametsetan* izeneko diskoarekin egin dutena. Lan oso berezia da, eta haren bidez, artistek beren lurraldeko musika omendu nahi dute, XX. mendeko euskal kultura musikala aldarrikatuz, eta bereziki euskarazko konposizioak. Izan ere, diskoa osatzen duten 30 abestietatik 24 euskaraz dira.

Abenduaren 10ean (astelehena), 19:30etatik aurrera, Arriaga Antzokiko publikoak *Ametsetan* lana zuzenean entzuteko aukera izango du. Donostiako sopranoak eta Barakaldoko pianistak kontzertu horretan aurkeztuko dute diskoa. Lanak XX. mendeko konpositore nabarmenenetako batzuen konposizioak jasotzen ditu, denak ala denak ganbera-musikaren mundu fin eta intimoaren zaleak; hauenak, adibidez: **Pablo Sorozábal** donostiarra (1897-1988), **Jesús Guridi** arabarra (1886-1961), **Andrés Isasi** bilbotarra (1890-1940) eta **Félix Lavilla** nafarra (1928-2013), Fernández Aguirreren beraren maisu izan zena. Horrez gain, Miren Urbieta-Vegak eta Rubén Fernández Aguirrek **Antón García Abril**ren *Tres nombres de mujer* zikloa ere interpretatuko dute. Ziklo hori *Ametsetan* lanerako berreskuratu dute; izan ere, artistek 2016an aurkeztu zuten Arriaga Antzokian, eta errezitaldian García Abril bera izan zen.

### **Amets egiteko melodiak**

*Ametsetan* gaueko musika-emanaldi zoragarria izango delakoan gaude, melodia ederrak eta euskarazko abestien edertasuna eta musikaltasuna bilduko dituen. Diskoaren edukari eta espirituari jarraikiz, Urbieta-Vegak eta Fdez. Aguirrek abesti hauek eskainiko dituzte: **Pablo Sorozábal** donostiarren Heine-ren testuei buruzko *Zazpi lieder*-ak eta **Jesús Guridi** arabarraren herri-kantetako zortzi (handik jaiotzen ziren *Diez melodías vascas* ezagunak). Era berean, **Andrés Isasi** konpositore bilbotarraren lau abesti entzun ahal izango ditugu; haren lanak merezi baino askoz gutxiago interpretatu dira kontzertu-aretoetan. Eta baita **Félix Lavilla** pianista nafarraren lau melodia ere, hain zuzen *Cuatro canciones vascas*. Adierazi behar dugu Lavilla erreferente handia dela Fernández Aguirre maisuarentzat; izan ere, bere mentore izan zen, eta elkarrekin prestatu zuten ahots eta

pianorako erreperitorioaren zati bat, bere konposizio batzuk barne, 2013an hil aurretik. Horrez gain, **Manuel García Morante** pianista eta konpositoreak ere, Lavillaren memorian, hogeitau hamar melodia harmonizatu zituen eta horietako lau sartu dituzte *Ametsetan* lanean; horiek ere Arriaga Antzokiko emanaldian entzun ahal izango ditugu. Azkenik, Mirenek eta Rubének, euren ahots eta teklen bidez, aipatutako **Antón García Abril**en zikloa eskainiko digute, konpositore handi horrek Rubén Fernández Aguirreri berari dedikatutakoa.

### **Diskoari buruz**

*Ametsetan* IBS Classical diskoetxeak argitaratu du 2018ko azaroan. Duela urtebete baino gehiago grabatu zen, 2017ko azaroaren 5etik eta 8ra bitartean, Granadako Manuel de Falla auditorioan, Francisco Moya musika-ekoizle preziatuarekin. Diskoa Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntzari esker argitaratu da.

### **Konpositoreei buruz**

Azken Karlistaldia amaitu ondoren (1876) eta XX. mendeko lehen hamarkadetan zehar, Euskadin inoiz ez bezalako loraldi artistikoa izan zen. Orduan, egile handiak sortu ziren, Europako artisten mailara jarri nahi zutenak, baina beren nortasunari eta sustraiei uko egin gabe. **Andrés Isasi** bilbotarra (1890-1940) bere garaiko modernismo musikalarekiko konpromiso handiena erakutsi zuena izan zen.

**Jesús Guridi** (1886-1961) arabarra ere oso figura garrantzitsua izan zen. Tradizio musikaleko handiko familia burges batean jaio zen; izan ere, Nicolás Ledesma kaperako maisu ospetsua zen bere aitona. Guridi ia bi hamarkadetan zehar Bilboko musikaren figura nagusia izan zen, eta gorantz zihoan euskal nazionalismo musikalaren idealak irudikatu zituen. Horren adibide garbia dira bere *Diez melodías vascas* (1941) lanak, Azkueren kantutegian jasotakoak. Horren parean, arreta deitzen du **Pablo Sorozábalen** (1897-1988) jatorri proletarioak. Jatorri landatarreko bertsolari baten semea izan zen, eta *Belle Époque* garaian aire finak arnastu zituen, Donostiako Orfeoiko eta Donostiako Gran Casino orkestrako kide izan baitzen. Bizirauteko, zinema, kafetegi eta kabaretetan lan egin zuen, eta bertan xurgatu zituen kaleko folklore garaikidea eta jazz hasiberria. Hain zuzen ere, 1929ko *Zazpi Lieder*-ak herri-kulturaren eta goi-kulturaren artean kokatzen dira, Heineren poetika eremu euskaldunera ekarriz.

**Félix Lavillak** (1928-2013), Rubén Fdez. Aguirreren maisuak, ahots eta pianorako erreperitorio espainiarra ondo baino hobeto ezagutzen zuen (Granados, de Falla, Toldrà, Turina, Obradors, etab.); eta horrez gain, konpositore bikaina izan zen. Horren adibide garbia dira Teresa Berganzari eskainitako *Cuatro Canciones Vascas* lanak, aberastasun musikaleko paregabea dutenak. Hain zuzen, Lavillak **Manuel García Morante**ren enkargu bat jaso zuen; Morante Victoria de los Ángeles soprano paregabearen pianista eta konpositorea zen. Bada, hark laguntza eskatu zion euskal melodia batzuk harmonizatzeko, baina ez zituen inoiz jaso, bidaltzeko aukera izan aurretik hil egin baitzen. Hala ere, Lavillaren alabarekin harremanetan jarri ondoren, García Morantek melodia horietako hogeitau hamar harmonizatu zituen, modu oso emotiboan, eta Félix Lavillari eskaini zizkion *in memoriam*.

Azkenik, Teruelgo **Antón García Abril** konpositore handiak Rubén Fdez. Aguirreri bere konposizio batzuk opari ematea eskaini zion, liluratuta utziko zuten poema batzuk aurkitzeko baldintzarekin. Fdez. Aguirrek *Isabel, Ainhoa y Begoña* erakutsi zion, hiru euskal poeten mezutik jaiotako hiru bizi-istorio grinatsu, García Abril erabat txunditu zutenak; eta horietatik abiatuta konposatu zuen *Tres nombres de mujer* zikloa.

### **ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK**

- 13 eta 18 euro artean.
- Salgai egongo dira [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmentaren ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia - 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)